

SAGARRA BERTSOAREN MAMIA DA



raindik gutxi dakit gai honetaz, erizpen dotore eta jakintsua eman ahal izateko. Beraz, gustatu eta harritzen nauena adieraztera mugatuko naiz. Zaila bada paper zuri baten aurrean jarri eta bertso sorta bat iskribatzea, askoz zailagoa ere bada bertso horiei doinua ematea eta kantatzea; hala ere, harrigarriena da guzti hori jende aurrean botatzea, paper, luma eta zuzenketarako aukerarik gabe. Ulergaitza, benetan. Herriko zaharek diotenez:

“Jainkoak asko daki
berak egin zuelako guzti”

Herriko zaharrek esan ere egiten dute Jainkoak kreazioa bukatutakoan, egindakoa-ri so eta bertsoan hasi zela, bapatean, ustekabe, apika izadiaren edertasuna ikusteaz:

“Ur freskoak, mendi sendoak,
zeru urdinak, orein arinak,
zaldi kementsuak, zezen indartsuak,
gizaki ederra, nere itxura berbera...”

Gero bere aingeruei begira zegoela, zeru, itsaso eta lur elkartzen ziren lerrotik txaloz ozen eta sakona zerion, -hala diote zaharrak-; txaloa gero eta handiagoa eginez joan zen, eztanda borobil eta ozenaz lehertu arte. Horri gure arbasoek “hirubon” deitu omen zioten, “hiru aldiz on”, esan nahi zuena. Ostera denboraren poderioz, “hirubon” “trubon” aldatu, geroago “trumon edo trumoi” bilakatzeko. Horregatik bertsolariak bere saioak bukatzen dituztenean, publikoaren txalo zaparradak herri hurbiletik entzunda, trumoi ozen eta luzea ematen du. Izan ere, bertsolaritza sortze lan aratza da.



◀
*Bertsoak
lurrari eusten
dio, lurra baita
gu guztion
babesa.*

Lau dira bertsolariak kontutan hartu behar dituen gauzak bertsoak sortzean: mamia, doinua, neurriak eta errima. Jainkoa bera eta hiru pertsona.

Egun batean, Fernando Amezketarrari gai hau jarri zioten:

“Nola sinisten dezu hiru pertsona badaudela Jangoiko batean?”

Bere erantzun xeblebe bezain sakona horrela izan zen:

“Nola sinisten dedan arrazoiarekin,
orain esango dizut sagartxo batekin:
Usai ta saporea, kolorearekin.
Horra hiru jenero gauza bat batekin”

Sagarra bertsoaren mamia da. Edukinik gabe, sagarra zizareen egoitza baizik ez litzateke, polita kanpotik, ustela barrutik alegia. Gero, usaina doinua da, kolorea errima, eta saporea, jakina, neurria eta hitzak. Saporea sagarrik gabe ez da ahal; era berean, sagarrari saporea kendu, eta ez da sagarrik izango, agian harria, hodeia, aidea,...

Bestalde, sagarrak lurrari bere sustriak gogor eutsi eta lurretik bertatik edan eta jaten ditu bere gaiak, mamiak, bere izaera azken finean. Sapore ezberdinetako sagarrak dira: garratzak, gaziak, gozoak,... eta bakoitzeko proportzio egokia erabiliz, sagardo onenak lortzen dira. Era berean, bertsoak zorrotzak, samurrak edota saminak izan daitezke, baina hiru osagai hauek “ardo literarioa, Bertsolaritza izenekoa”, erdies-ten dute. Ondo egin diezazuela!

RAMON GUTIERREZ IZARRAKOA